

Eilastasuna Fondoa 2009

PROIEKTUA: Hezkuntza alternatiboa. El Salvador

Tokia	Departamento de Chalatenango. El Salvador	Bertako erakundea	Asociación Tiempos Nuevos Teatro
Eremua	Hezkuntza Alternatiboa	Eskatutakoa	5000 euro

Egitasmoa aurkezten duen bertako erakundea

TNT irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da eta 15 urte daramatza lanean El Salvadorreko Chalatenangoko departamentuan. Ekimena 1993. urtean sortu zen herri-hezkuntza, osasun komunitarioa eta gure komunitateen eta departamentuaren barne aldaketa prozesuak laguntzeko asmoz. Urte hauetan zehar gure proposamenak osatu dira eta gure proiektzioa zabaldu egin da, eta bai alde artistikoan baita gizartearenean ere hezkuntza prozesuekin kontaktzen dugu; Esfortzua egiten dugu aldaketa eta gizarte transformazio gaitasuna duten pertsonak hezitzeko.

Zertan datza proiektua

Hezkuntza Alternatiboko programan TNT-ko Plan Estrategikoa 2008-2009 ikasturtean honetan datza:

- 1.- Ikasketetako dirulaguntzen eskaintza gazte multiplikatzaileen prestakuntza garantizatzeko haien komunitateen benetako promotore kultural moduan.
- 2.- Emakumeekin tailerrak garatzea, garapen pertsonaleko espazio moduan, artea eta kreatibitatea erabiliz eta komunitatean proiektatuz.
- 3.- TNT-ko Centro Cultural Jon Cortina egoitza berria hornitu benetako dinamika soziokultural baten epizentroa izan dadin.

Nori egiten dio onura zuzenean

Chalatenangoko departamentuko komunitate berjendetzatuan, lidergoa duten haur, gazte eta emakumeak.

Nori egiten dio onura zeharka

Familiaren ardura dutenen bidez, komunitateari bere osotasunean; erakunde komunitarioen bidez, hala nola, zuzendaritza komunaletan, emakumeen asanbladetan, irakasle taldeetan eta gazte taldeetan beste batzuen artean.

Aurkeztutako aurrekontua

- 1.1.- Multiplikatzaileei dirulaguntzak eta aktore taldea 1500euro
- 1.2.- Bekadunentzat garraioa eta elikagaiak 1500euro
- 2.1.- Tailerrentzako materialak 700euro
- 2.2.- TNT egoitzarentzako egokitzapena 1300 euro

Harremana eta jarraipena

TNT erakundeak lagundu dezake bere esperientzia diseinuarekin eta El Salvadorren antolatu daitekeen sindikatuko brigadaren agendarekin edo behintzat Chalatenangoko Departamentuan, interesa badago

Bere zuzendari exekutiboa, Bilbon jaioa eta El Salvadorren bizi dena dela 20 urtetik hona, ulermen prozesuak erraztu ditzake El Salvadorreko errealitateaz edo brigadaren integranteen prestakuntzarekin.

Ipar-Hego harremana joan-etorrikoa dela ulertzen dugu, elkar aberaspen moduan. TNT antzerki taldea, momentu ezberdinetan Europatik ibilitakoa da eta ez genuke alde batera utziko, baldintzak onak balira, Euskal Herrian bat antolatzeari. Gaur egun, Europako konpromiso batzuen zain gaude 2009.urtean errealitate egin daitezkeenak.

TNT, sindikatua eta El Salvadorreko errealitatearen arteko zubia izan daiteke, ikastetxeetan aurkezpen artistikoen bidez, ingurua sentsibilizatu dezake bai ikasleriarena baita irakasleriarena ere, solidaritatea geletan sartuz era ludiko eta ez konbentzional batean.

Baita ere gonbidatzen dugu Euskal Herriko irakasleen bisitak sustatzea gure erakundeetan, elkar ikaskuntza eta esperientzia interesgarri moduan.